

DOSIER GRAFIKOAREN ZEHAZTAPENAK

Dosier grafikoa: eskari egilearena. Gehienez 50 puntu (Masterrak gehien bat izaera profesionala dauka, eta irakaskuntza sistemaren oinarria ikasle bakoitzak pintura arloan egiten duen lana da, ikuspegi eta izaera profesionalaren ikuspegia oinarri hartuta, eta, beraz, atal honetan eskari egileak ez baditu 25 puntu lortzen, onarpen prozesutik kanpo geratuko da). (% 50)

ZEHAZTAPENAK

1. Oraintsuko obren dosierra, horien irudiak eta motibazio-gutun bat barne (gehienez 300 hitz) eta lanaren deskribapen laburra edo asmoen adierazpena (gehienez 200 hitz).
2. Komeni da jatorrizko argazkiek gutxieneko bereizmen egokia izatea pantailan ikusteko, xehetasunak handitu eta hautemateko.
3. Obren fitxa teknikoa sartzea gomendatzen da (urtea, teknika, neurriak – altuera x zabalera –).
4. Dosierreko testuak gaztelaniaz edo euskaraz idatzita egon beharko du.
5. Gehienez 15 orrialde eta 20Mb-ko pisua duen PDF dokumentu bat aurkeztuko da. Dokumentuaren izenburua honela osatuko da: lehenengo abizenaizena_dosierra, komak, tildeak, puntuak edo espazioak, ñ letra, barra zehiarrak eta abar txertatu gabe. Adibidea: agirreleire_dosier.pdf.
6. Dosier gisa ez da onartuko erantsitako dokumentaziorik (katalogoak, liburuxkak, jatorrizko anak, etab.).

Hautaketa begirada ugaritan oinarritzeko, txostena masterreko irakasleen klaustro osoak ebaluatuko du. Irakasle bakoitzaren irizpide berezietz gain, honako balorazio-irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan ebazpena emateko:

- Eskatzaileen aurretiazko obraren edo lanaren interesa eta potentzialtasuna, bai eta haien karrera zein unetan dagoen ere.
- Praktika pertsonal bat garatzeko konpromiso-maila, obra-dosierren eta motibazio-gutunaren edo asmo-adierazpenaren bidez egiaztatua.
- Praktika motak masterraren eta, oro har, fakultatearen testuingurua aberasteko egiten duen ekarpena.
- Masterrak, bere irakaskuntza-orientazioagatik, aurkeztutako obra motaren aurrerapenean ekar lezakeena edo ekar ezin lezakeena kontuan hartzea.

7. Dosierren balorazioa puntuazio-prozedura honen arabera egingo da:

Masterreko irakasle bakoitzak, deialdira aurkeztutako dossier guztiak aztertu ondoren, egokitzen dituen puntuazioak ezarriko ditu, bere irizpide partikularren eta irizpide orokorren arabera. Horretarako, 50na puntu emango dizkie hoberentzat jotzen dituen hogeit hamar dossierrei; 30na puntu hurrengo hamarrei; 15na puntu hurrengo bostei eta 10na puntu gainerakoei. Hortik aurrera, irakasle guztien puntuazioen batez bestekoa egingo da, eta hortik aterako da hautagai bakoitzaren puntuazio partikularra.

Masterraren Batzorde Akademikoak 20 eta 24,99 puntu bitarteko batez bestekoa lortzen duten dossierren puntuazioa 25 punturaino igotzeko aukera izango du, betiere dossier horiek gutxienez 30 edo 50 puntuko 6 nota lortu badituzte.